



KONTSUMO-EGUNKARIA

KONTSUMOA: *Eguneko zenbat?* Lantegi honen bitartez eta gazteek kontsumitzaile gisa duten esperientzia baliatuta, Gasteizko nerabeen kontsumo-dinamikak identifikatzen saiatuko gara.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTE-HARTZAILEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> • Nerabe-taldearen behar zehatzak ezagutzea. • Kontsumismoaren inguruko hausnarketa sustatzea. • Espiritu kritikoa eta autokritikoa bultzatzea. • Parte-hartzaileek euren inguruari buruz duten azterketa-gaitasuna bultzatzea. 	<p>Parte hartzailea, sortzailea eta analitikoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irudiak erabiliz, "kontsumo-egunkariak" egin. • Egunkarien inguruko hausnarketa eta eztabaida. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua: 10 • Adina: 14 – 18 	<ul style="list-style-type: none"> • 4 saio: 2h/s.

Argitaratzailea:



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Laguntzailea:

Arabako Foru Aldundia



Diputación Foral de Alava

GAZTEIAREN FORU ERAKUNDEA



INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

¿QUIERES SER LA PORTADA DEL PRÓXIMO PKT? ESCRIBENOS

pktenteres@vitoria-gasteiz.org



2007ko apirileko azala.

0. TESTUINGURUA

Lantegi hau *PKTexpreses* Lantegi-programaren (2006-2008) barruan kokatzen da. Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren menpe sortutako ekimena da eta hiriko hainbat gazte-kolektiboekin batera, prozesu parte hartzaile eta kolaboratzaileak bultzatzen ditu, talde-lana, inguruaren azterketa eta espiritu (auto)kritikoa sustatuz.

Lantegietan landutako edukiak *PKTenteres* aldizkarian argitaratzen dira (azalean eta bi orrialde). *PKTenteres* (PKT) 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako hilerro argitaratzen den informazio-aldizkari dinamiko eta parte hartzailea da, Vitoria-Gasteizko Gazteria Sailaren menpe dago eta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoarekin (GAUB) elkarlanean egiten da.

Info+ *PKTenteres*: www.vitoria-gasteiz.org/pktenteres

Info+ GAUB: www.vitoria-gasteiz.org/omij

1. KONTSUMO-EGUNKARIA

KONTSUMOA: *Eguneko zenbat?* Lantegi honen bitartez eta gazteek kontsumitzaile gisa duten esperientzia baliatuta, Gasteizko nerabeen kontsumo-dinamikak identifikatzen saiatuko gara.

Hasteko, hainbat kontsumo-egunkari egingo ditugu eta ondoren, egunkariak aztertu eta eztabaidatuko ditugu gazteek kontsumoaren inguruan dituzten ideiak eta praktikak lantzeko asmoz.

2. HELBURUAK

Hona hemen *PKTexpreses* lantegien helburu orokorrak:

- *PKTenteres* aldizkaria gazteengana hurbiltzea eta euren adierazpide eta tresna gisa sentiaraztea.
- Gasteizko gazteen arteko parte-hartzea eta elkarlana sustatzea.
- Gazteen beharrak ezagutzea eta haietara hurbiltzea.
- Gaur egungo gazteria indartzea eta hari hitza ematea.
- Talde-lana sustatzea
- Nerabeen arteko elkarrizketa eta espiritu kritikoa bultzatzea.
- Elkartasuna eta begirunea sustatzea.
- Gazteen eta erakundeen arteko hurbilketa-formulak sortzea.
- Gazteen artean parte hartzeko lotura berriak sortzea.
- Haien sormen-gaitasuna bizkortzea.
- Haien jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea.
- Hiritar aktibo gisa sormenean eta edukien zabalkunde bizkortzea.

Kontsumo-egunkaria lantegiaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Nerabe-taldearen behar zehatzak ezagutzea.
- Gazteen jardunean praktika egokiak sustatzea.
- Autokritikoa izan daitezen deabruaren abokatu papera jokatzea.

PKTexpreses lantegiak Gasteizko Udalaren lantegi-programan kokatzen dira. Bertan sortzen diren eztabaidek eta edukiak *PKTenteres* aldizkariaren edukiak osatuko dituzte.



Lantegitik ateratako eta aldizkarian argitaratutako behin betiko edukiak.

Jaits ezazu *PKTenteres* .zbk. (2007ko apirila)
www.vitoria-gasteiz.org/pktenteres



Asteburuko kontsumo-egunkaria.

“Ez dugu geure burua kontsumista gisa ikusten, behar bada diru gehiegirik ez dugulako”



Asteburuko kontsumo-egunkaria.

“Astean zehar ikasi egiten dugu eta ez dugu ia dirurik gastatzen. Asteburuetan lagunekin elkartu eta gehiago gastatzen dugu. Gure kontsumoa aisialdiarekin lotzen da gehienbat”



Asteburuko kontsumo-egunkaria.

“Dirurik gabe ezin da ezer egin, baina izango ez bagenu, moldatuko ginateke”.

- Kontsumismoaren inguruko hausnarketa sustatzea paternalismorik gabe.
- Inguruko mundua aztertzeko parte-hartzaileek duten gaitasuna suspertzea.
- Espiritu kritikoa eta autokritikoa sustatzea.
- Bestelako taldeekin duten parte-hartzea bultzatzea.

3. EDUKIAK

KONTSUMOA
KONTSUMO-DINAMIKAK

4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Metodologia analitikoa, parte hartzailea eta sortzailea izango da. Lan-metodoak gazteen bizitzan argazkien bidez sartzea proposatzen du. Astero, irudiekin egindako “egunkaria” aurkeztuko da.

Kontsumo-egunkariak: Asteburuan zehar erosten duten guztia eta “maximoen” (diru-mugarik izango ez balute erosiko luketen guztia) edo “minimoen” (diru gutxi izan ezker, ezinbestekoa zaiena) egunkaria izan ezker, erosiko luketen guztia argazkietan jasotzea.

Saio bakoitzean, parte-hartzaileek ekarriko dituzten emaitzak komunean jarriko ditugu eta egunkariaren bitartez, bakoitzak kontsumismoaren inguruan duen ikuspuntua ezagutuko dugu eta bide batez, kontsumoaren aurrean norberak dituen jarrerak aztertuko ditugu.

5. LANTALDEA

Parte-hartzaile kopurua: 6 lagun
Adina: 15 – 16 urte
Sexua: Talde mistoa

Erdiko gizarte-mailako gazteak dira, euren ingurua kulturalki garatua da eta izan ditzaketen behar guztiak familiak asetzen ditu.

6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

2008ko martxoaren 2, 9 eta 16 (denak ostiralak).
Aurkezpen eta planteamendu eguna: martxoak 26.

Martxoak 02-2h (18:00-20:00).
Martxoak 09-2h (18:00-20:00)
Martxoak 16-2h (18:00-20:00)
Martxoak 26-1h (18:00-19:00).



OHARRA

Zenbait parte-hartzailek harremana dute GAUBrekin, beraz, GAUBren egoitza erabiliko dugu batzarrak egiteko.



“Maximoen” kontsumo-egunkaria.

“Lana baloratzen dugu. Egia esan, gurasoei etengabe dirua eskatzen egotea lotsagarria iruditzen zaigu. Normalean, gure eskura ez dagoen zerbait (garestiagoa) nahi dugunean, gabonak, urtebetetzea edo antzeko dataren bat itxaroten dugu”.



“Maximoen” kontsumo-egunkaria

“Aurreztuta dudan diruarekin bidai bat egitea edo nahi dudanean erabili ahal izateko ordenagailu eramangarria erostea pentsatu dut. Etxean ordenagailua erabiltzeko txandekin arazoak izaten baititugu”.

7. KOKAPENA

GAUBren lokalak.

8. MATERIALA

Materiala:

- Bulegoko materiala: boligrafoak, errotuladoreak, itsasgarria, guraizeak
- Ordenagailu eramangarria
- usb

Azpiegiturak:

- Gela bat.
- Kanpora ateratzeko aukera.

Parte-hartzaileek ekarri beharreko materiala:

- Norberaren egunkariak: egindako argazkiak.

9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko, parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...)
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa)
- Harreman eta enpatia maila
- Taldearen harreman pertsonalak
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna
- Sormen-gaitasuna
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.

10. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

1eranskina: 1. saioa

2eranskina: 2. saioa

3eranskina: 3. saioa

4eranskina: 4. saioa



“Ez banu dirurik izango edo 2 euro bakarrik izango banitu, egarria izan ezker, edaria erosiko nuke eta gosea izan ezker, bokata bat”



“Minimoen” kontsumo-egunkaria.

“Dirua baloratzen dugu, badakigulako dirurik gabe ezin dela ezer egin, baina zenbait gauza ez izateak ez digu axola. Beharbada gure beharrak familiak asetzen dituelako.”

11. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezak, etab.

IA18

Aretxaga, 10
48003 Bilbao
946 053 468

www.casitengo18.com

info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK

Nerabe-taldearen **behar zehatzak ezagutzea**.
Haien jardueran **praktika egokiak** sustatzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	PKTaren aurkezpena	PKTexpreses	PKTenteres (Aurreko zenbait zenbaki).
10 min.	Lantegia azaldu	Lantegiaren <i>planing-a</i>	
20 min.	Eztabaida	Nerabeak eta kontsumoa	Bulegoko materiala
30 min.	Argazkiak erabili	Lan-metodologia	
30 min.	Kontsumo-egunkaria	Lan-metodologia	
20 min.	Zalantzak eta eztabaida		

PKTaren aurkezpena-----**10 min.**
Aldizkaria azaldu. Edukien, kolaborazioen, espirituaren... azalpen laburra.

Lantegia azaldu-----**10 min.**
Lantegia azaldu: Kontsumo-egunkaria. Lantegia zertan datzan azaldu, planing-aren azalpen laburra.

Eztabaida-----**20 min.**
Hitzaldi-eztabaida. Lantegiko gaira hurbildu. Kontsumoaren inguruan hitz egingo dugu. Egunkariak egin aurretik, taldeak dituen iritzia ezagutzea garrantzitsua da. Eztabaidan aterako diren zenbait ideia jasoko ditugu lantegian zehar lantzeko.

Gazteen bizitzan sartu argazkien bidez-----**30 min.**
"Kontsumo-egunkarien" inguruko lana azaldu. Irudiekin egindako "egunkaria" proposatuko dugu. Parte-hartzaileek kontsumitzen dutena eta kontsumitu nahiko luketena argazkietan jasoko dute eta horren inguruan eztabaidatu ondoren, lantegiak zentzua hartuko du. Argazkiak egitearen garrantzia azalduko diegu, ondoren lana komunean jarri ahal izateko.

Kontsumo-egunkaria-----**30 min.**
Lehen astean, asteburuko kontsumoaren inguruko egunkaria eskatuko diegu, hau da, asteburuan dirua zertan gastatzen duten argazkietan jasotzea, nahiz eta garrantzirik gabeko gauzak iruditu.

Zalantzak-----**20 min.**
Lana eta metodologia aurkeztu ondoren, egin beharrekoaz dituzten zalantzak argituko ditugu.



2. SAIOA

HELBURUAK

Kontsumismoaren inguruko hausnarketa sustatzea paternalismorik gabe. Inguruko mundua aztertzeko parte-hartzaileek duten gaitasuna suspertzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	Ongietorria	Lan-prozesua	Ordenagailu eramangarria
45 min.	Egunkariak ikusi	Asteburuko kontsumoa.	Usb kablea Irudi pertsonalak
45 min.	Eztabaida	Kontsumo pertsonala Zertan gastatzen dugu dirua? Gizabanakoaren kontsumoa	
15 min.	Kontsumo-egunkari berria		

Ongietorria----- **15 min.**
Aurreko saioa errepatatu eta komentatu. Egindako lana komentatu eta zailtasunak plazaratu.

Egunkariak ikusi----- **45 min.**
Egindako lana ikusi, asteko kontsumo-egunkari guztietako irudi guztiak ikusi.

Eztabaida----- **45 min.**
Parte-hartzaileek ekarritako emaitzak komunean jarri eta egunkari hauen bitartez, bakoitzak kontsumoaren aurrean duen jarrerari buruz hitz egingo dugu.

Kontsumo-egunkari berria----- **15 min.**
Hurrengo saiorako, ekintza berdina, baina ikuspuntu desberdinetik planteatuko dugu., "maximoen" egunkaria, hau da, diru-mugarik izango ez balute, erosiko luketen guztiaren egunkaria.



3. SAIOA

HELBURUAK

Espiritu kritikoa eta autokritikoa sustatzea.
Bestelako taldeekin duten parte-hartzea bultzatzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	Ongietorria	Lan-prozesua	Ordenagailu eramangarria
45 min.	Egunkariak ikusi	“Maximoen” kontsumoa	Usb kablea Irudi pertsonalak
45 min.	Eztabaida	Kontsumo pertsonala Zertan gastatzen dugu dirua? Gizabanakoaren kontsumoa	
15 min.	Kontsumo-egunkari berria		

Ongietorria----- **15 min.**
Aurreko saioa errepasatu eta komentatu. Egindako lana komentatu eta zailtasunak plazaratu.

Egunkariak ikusi----- **45 min.**
Egindako lana ikusi, asteko kontsumo-egunkari guztietako irudi guztiak ikusi.

Eztabaida----- **45 min.**
Parte-hartzaileek ekarritako emaitzak komunean jarri eta egunkari hauen bitartez, bakoitzak kontsumoaren aurrean duen jarrerari buruz hitz egingo dugu.

Kontsumo-egunkari berria----- **15 min.**
Hurrengo saiorako, ekintza berdina, baina ikuspuntu desberdinetik planteatuko dugu., “minimoen” egunkaria, hau da, diru gutxi izan ezker, zer da ezinbestekoa beraientzat.



4. SAIOA

HELBURUAK

Gazteei euren jarduerak **aurrera ateratzeko tresnak** eskaintzea.
Hiritar aktibo gisa edukien sormenean eta zabalkundearen bizkortzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	Ongietorria	Lan-prozesua	Ordenagailu eramangarria
30 min.	Egunkariak ikusi	“Minimoen” kontsumoa	Usb kablea Irudi pertsonalak
30 min.	Eztabaida	Kontsumo pertsonala Zertan gastatzen dugu dirua?	
30 min.	Ondorioak		Bulegoko materiala
20 min.	Ebaluazioa	Lantegia eta edukiak	Ebaluazio-inkestak.

Ongietorria----- **10 min.**
 Aurreko saioa erreparasatu eta komentatu. Egindako lana komentatu eta zailtasunak plazaratu.

Egunkariak ikusi----- **30 min.**
 Egindako lana ikusi, asteko kontsumo-egunkari guztietako irudi guztiak ikusi.

Eztabaida----- **30 min.**
 Parte-hartzaileek ekarritako emaitzak komunean jarri eta egunkari hauen bitartez, bakoitzak kontsumoaren aurrean duen jarrerari buruz hitz egingo dugu.

Ondorioak----- **30 min.**
 Lantegiak iraun dituen egunetan sortutako ideiak komunean jarri. Ideia nagusien sintesi laburra egin.

Ebaluazioa----- **20 min.**
 Parte-hartzaileekin batera lantegiaren ebaluazioa egin. Ebaluazio-inkestak bete eta iritzia komunean jarri.